

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak mundu osoan zehar gertatzen diren gatazka kaltegarriak kontuan izanda, kaltetuak izan diren pertsonen laguntzea du helburu. Gure bizi kalitatea eta pribilegioak ikusita, behar dutenei laguntza eskaintzea guztiz beharrezkoa dela ziurtatzen dugu eta mundu guztiko jendeak bizi kalitate egoki bat goza ahal dezan, gogor lan egiteko prest gaude.

Argi dago helburu hau lortzea ez dela erraza, guztiz kontrakoa baizik, eta guk bakarrik lortzea guztiz ezinezkoa da, beraz, horretarako guztion laguntza eskatu beharko dugu.

Laguntza hau merkatuaren bidez lortuko dugu, gure arropa marka originala sortuz eta merkaturatuz, behin arropa argitaratuta eta merkaturatua dagoela, irabazien ehuneko bat laguntza behar duten herrialdeetako gatazkek salatzeko erabiliko dugu, adibidez, gure arropa emanez edota bertako kalte zehatzak konponduz.

Gure diseinu bat:



(ez da diseinu finala)

Laguntza hau emango diogun herrialdeetara, guk presentzialki bidaiatuko dugu (behin kapital nahikoa izan mugitzeko), ahal dugun guztian lagunduko dugu. Herrialde hauetan gauden bitartean hainbat bideo grabatuko ditugu, kontzientziatzen baina gauza dibertigarriak ere egiten (bertako umeekin jolastu, bidaiak antolatu, kirolak praktikatuz...), horrela jende gaztea identifikatuta sentituko da eta gure irudi on batekin geratuko da, bestalde, nagusiak gehien bat mezuarekin geratu dira.

Gure baloreekin jarraitzeko, uste dugu beharrezkoa dela argitzea gure arropa edo salduko ditugun produktuak (merkatuaren eskaeren arabera beste produktu batzuk saltzeko prest gaude), guztiz edo ahalik eta ekologikoak izango direla, munduan gertatzen ari den gatazka hau, arropa sektoreko marka askok atzean utzi dutelako, eta honek munduari lagunduz gain, ingurumena lagundu nahi duten pertsonak gure arropa erostea beste marka askoren aurretik erosiko dute.

Bukatzeko, gure enpresa aurrera eramatea lortuz gero, posiblea da munduaren kalteak asetzea helburua duten erakundeak gurekin lan egitea.

Hurrengoko hau orain arte emandako ideia nagusien laburpena da:

<p>GURE OINARRIAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahalik eta gehienez laguntzea gure helburu nagusia delako</li> <li>• Munduko beste kultura batzuk mundura zabaltzeko: bidaiari eta bideoen bitartez</li> <li>• Produktuetan material organiko eta ekologikoen erabilera</li> <li>• Publizitateko modu interesgarri eta modernoak</li> <li>• Gazteak kontzientziazteko ereduak</li> <li>• Gizarte eta adin guztietarako produktu erakargarriak edukitzea</li> </ul>
<p>ZERGATIK GU?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ematen dugun mezua: danok lagundu ahal dugula eta guztion onerako izango dela</li> <li>• Ideia interesgarriak martxan jartzeko prest gaudelako</li> <li>• Ikuspuntu moderno eta aurrerakoia</li> <li>• Merkatu oso zabal eta ohiko batean nabarmendu ahal izateko ahalmena</li> <li>• Bidaiatzeko eta gure begiekin mundua den bezala ikusteko prest egotea</li> </ul>